

Informazio-zirkularra: 2023/03

Hernani, 2023ko martxoaren 3a

LAN-ARLOA – LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA

BOEn argitaratu da 99/2023 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, lanbide arteko gutxieneko soldata hileko 1.080 euro gordinera igotzen duena, 14 ordainketatan, urteko 15.210 euroraino.

36 euro/eguneko edo 1.080 euro/hileko soldata ezarri da, soldata egunka edo hilabeteka banatua den.

Jarduera bakoitzeko legezko lanaldiari dagokio soldata hori, igande eta jaiegunetako zati proportzionala eguneko soldatan sartu gabe. Lanaldi txikiagoa eginez gero, kopuru proportzionala jasoko da.

Soldata berri honekin, % 8 igo da gutxieneko soldata, eta % 47ko igoera ekarri du azken bost urtean.

Atzerako eragina izango du igoerak, 2023ko urtarrilaren 1etik.

LAN-ARLOA – LAN-IKUSKARITZA: JAZARPENAREN AURKAKO ENPRESA-PROTOKOLOEI BURUZKO KANPAINAK

Berdintasun Ministerioak erabaki du negozio guztiek, langile kopurua gorabehera, nahitaez egin behar dutela sexu-jazarpenaren prebentziorako eta haren aurrean jarduteko protokolo bat. Halakorik egin ezean, autonomoak zigor larria jaso lezake.

Beren ardurapeko langileak dituzten enpresa guztien betebeharra da lan-jazarpenaren aurkako protokolo bat izatea, langile kopurua edo enpresaren neurria gorabehera. Berdintasun Ministerioak agindutako protokoloan, jazarpenaren prebentziorako neurriak zein lanpostuan jazarpen-egoerarik sortuz gero hartuko diren neurri eta prozedurei buruzkoak jaso behar dira.

200.000 eurotik gorako zigorra jaso dezake autonomoak

Autonomo batek sexu-jazarpenaren eta/edo sexu-arrazoien ondoriozkoaren aurkako protokoloa egiteko betebeharra urratzen badu, zigor larria jaso lezake, eta salaketa jaso justizian. Ordaindu beharreko kopurua arau-haustearen larritasunaren arabera izango da: arina, larria edo oso larria.

- **Arau-hauste arina:** 7.501 eurotik 30.000 eurorainoko isunak.

- **Arau-hauste larria:** 30.001 eurotik 120.005 eurorainoko isunak.
- **Arau-hauste oso larria:** 120.006 eurotik 125.018 eurorainoko isunak.

Zer neurri hartu behar ditu autonomo batek bere negozioan jazarpena gertatzen bada?

Salaketa bat jartzen bada sexu-jazarpena edo sexu-arrazoien ondoriozko jazarpena izan delako, dagokion ikerketa egin ondoren, egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartu ahalko ditu autonomoak; esate baterako:

- Erasotzailea fisikoki aldentzea biktimarengandik, postua, txanda edo ordutegia aldatuta (inoiz ez da biktima behartuko aldaketa onartzera).
- Erasotzailea zigortzea hitzarmen kolektiboan aurreikusitako zigor- eta arau-hausteen taula aplikatuz.
- Postua, lanaldia edo lantokia aldatzea, tokiz aldatzea edo mugitzea.
- Enplegua eta soldata kentzea.
- Lanpostu-igoera mugatzea.
- Diziplinazko kaleratzea.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu enpresa guztiek, handiek zein txikiek, soldata-erregistro bat izan beharko dutela, eta erregistro horretako informazioa langile guztien eskura jarri.

Zalantzarik edo galderarik izanez gero, jar zaitezte harremanetan BRINTZArekin.

INTERESEKO EPAIAK

Laneko txanda aldatzea:

Goizeko eta arratsaldeko txandetan zerbitzu ematen zuen langile batek lanaldia murrizteko eta ordutegia egokitzeko eskatu zuen, goizez lan egiteko, eta enpresak eskaera ukatu zion, antolamendu-arrazoia argudiatuta.

Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak erabaki du [MJAN 2022-06-22] ordutegia egokitzea ez dela eskubide absolutu bat eta haztatu beharreko kontua dela, enpresaren egoera zehatza eta haren antolamendu-beharrak kontuan hartuta. Kasu honetan, enpresak frogatu zuen antolamendu aldetik ezinezkoa zela langileak arratsaldez zerbitzu ematea, bai baitzegoen beste langile bat goizez lan egiten zuena. Eskaera onartzeak ekarriko luke gainerako langileek arratsaldez zerbitzu ematea, eta horrek kontratu-betebehar bat haustea eta gaur egungo txanden erregimena aldatzea eragin lezake. Horrez gain, ebatzi da ez dela oinarritzko inongo eskubiderik urratu.

EUROPAKO DIRULAGUNTZAK

2023ko otsailaren 10ean, Gipuzkoako Foru Ogasunean argitaratu dira Europako dirulaguntza-deialdi nagusi interesgarrienak:

CEF-E – Europa Konektatu Mekanismoa – Energia. Energia berriztagarriko mugaz gaindiko proiektu eta obrak. CEF-E-2022-CBRENEW. Hurrengo epea: 2023-02-23.

Europa Sortzailea programa, Kultura atala, Lankidetzazko proiektuak eta Europako literatura-lanak zabaltzeko laguntzak. CREA-CULT-2023-COOP / LIT. Hurrengo epea: 2023-02-21.

Digital Europe programa. Zibersegurtasuneko Eskumenen Europako Zentroa (ECCC). DIGITAL-ECCC-2022-CYBER-03. Hurrengo epea: 2023-02-15.

ELISE. Europako Bikaintasun Zentroen Sarea. Berrikuntzako Horizon esparrua. ETEentzako laguntzak, adimen artifizialeko berrikuntzetarako. Hurrengo epea: 2023-02-16.

REACH inkubagailuaren programa. Datuen kudeaketaren arloko startup enpresak. DT-ICT-05-2020. Hurrengo epea: 2023-02-21.

Europako Funts Soziala. EURES sarea (Europako Enplegu Zerbitzuak). TMS laguntzak (Mugikortasun Espezializatuko Eskema). Hurrengo epea: 2023-02-15.

ETEn lehiakortasunari buruzko COSME programa. EU Digi Tour laguntzak. Turismoko ETEen berrikuntza. Hurrengo epea: 2023-02-16.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste-eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.